

ETA MAITA HERRIA... (HIRUGARREN ATALA)

Gerardo MUNGIA

Patxi lanean hasi da Iruñean. Bertan langile borrokalariai topatu ditu, baina baita eskirolak ere, eta bi taldeen arteko liskarra piztu da. Luze gabe, Polizia agertu da eskirolen defentsan eta borrokalariai oldartu zaie. Zenbait langile zauritu ditu, baita beste batzuk atxilotu ere.

1. KANTOREA: GURE HERRIAN BALITZ (BALADA)

Sortu nintzen herria; ez dut bertzerik jakin.
Baketsu zen lekua; ingurunea zilin.
Hautzaroa han emanda, bizitu hobekienik:

Eguneroko eskola, ugaldea, ezkerpareta...
Manaerrazak ginen ere etxeko lanetan.
Igandero mendirat ta ondoko aperitifa...
Bazkalondoan, salan, nagusien mus partida.

Alta hautzaroa laster iragaiten da
eta ohartu baiko gizona nintzen; bris-brau!
“Zokotik atera behar ta kaiola zapuztu”.

Bizi naizen hirian maitetia da ezagut.
Bera da ene izarra, izan gau ala egun.
Kolorez beztitzen da, hippy bezain lakrikun.

Bizi naizen hirian maitetia da haizea.
Bera da ene argia, bakarra eta lehena.
Kolorez betetzen nau, osoki zait ñapur.
Maitaleen egunak, barneko samurtasun.

Sortu nintzen herria dakusat lühartzean
Maitetia da ondoan; xurxurikatu dut:
Hau urostatuna hau! Gure herrian balitz!

Arizale guziak taulatik erretira.

1. SATANERIA

Jelki oholtzara Kerra eta Pokerra satan gehienak.
Bazterrak nahastera datoz.

Kerra.
32. Noiztik hi Euskal Herrian?
Erradak zertan Pokerra!
Haran idor hauetarik...

Haugu zabaltzerat herra!

Pokerra.
33. Luziferrek manatu dik
eskualdea nahasi.
Iñorant gure alde
jarriko diagu Patxi.

Kerra
34. Jada laborantza utzi.
Lantegian kopetatsu.
Abertzaleekin bihurri.
Borrokarako egartsu.

Pokerra
35. Fabrikako nagusia

infernuko anaidian.
Honek otzanduko dik.
Dasta ditzan ilintiak!

Kerra
36. Kasu horrekin Pokerra!
Agian iduri ergela.
Behazak zezena baituk,
nehondik nehorat itela

Pokerra
37. Armadak gizona gizon,
lanak jendea jende.
Liberti gitean Kerra!
Dagigun menderik mende...
Kar, kar, kar...



Patxi herritik alde egin
du. Iruñera doa.
Haira ARIZTEGI

Satanak oholtzatik erretira borta gorritik.

3. JELKALDIA

Patxi Iruñerat abiatu da; laster lantegi batean kontratatu dute. Hiri handian plantatzen da. Gaur lehenbiziko laneguna du. Lankideekin goizeko hamarretako geldialdiaz gozatzen ari da.

Jelki taulara Patxi eta fabrikako langile zintzoak, borrokalariak.

Patxi
38. Jada fabrika honetan.
Seiehun langile bederen.
Soldata onesgarria.
Bizi izateko hobekien.

39. Auto xumea badaukat.
Herrirat ahal dudan ber.
Hemen, Iruñean bizi naiz
ganer batean, bereber.

Atxen (langilea)
40. Nik sei urtez lantegian.
Nintzenetikan gaztetxo.
Hemen segitu beharko.
Oraino ez bainaiz ito.

Anabel (langilea)
41. Ez da bakarrik soldata
elikatzen gaituena.
Mundua hunki behar da.
Langileen itxaropena.

Modesto (langilea)
42. Aizu Patxi, sindikatan,
komitean saia zaitez...
Denok batera arraunean.
Aitzin borrokaren bidez.

Patxi
43. Langile mugimenduak
isuri du hainbertze odol...
Ni ez fabrikan, ez nehon,
ez naiz izanen eskirol.

Esther (langilea)
44. Kasu konpaiak! Badatoz
Zorri, Purnas, Kakalardo...
Traidoreak, salatiak...
Zinez, handia da saldo...



Iruñean Idoia ezagutuko du
Patxi... hurrengo atalean.
Haira ARIZTEGI

Langile horiak edo eskirolak, taulara jalgitzen dira. Mehatxuka, erasokor. Uste dute “beren” lantegia dela, haiek ere bide batez nagusiak direla. Gixot hauek!

Purnas (langile horia)
45. Zertan ari zarete zuek?
Nagikerietan ote?

Patxi Iruñerat abiatu da; laster lantegi batean kontratatu dute. Hiri handian plantatzen da. Gaur lehenbiziko laneguna du. Lankideekin goizeko hamarretako geldialdiaz gozatzen ari da

Jelki poliziak, jujea eta fabrikako nagusia taularat. Langile horien, eskirolen, laguntzera doaz. Poliziek gomazko pilotak eta ke potoak jaurtikitzen dituzte. Liskarrean gazte bati begi bat leherrarazi diote...

Ala azpijokoetan?
Lanerat joan, bizkor, fite!

46. Errestaliko saguak.
Zintzamari alferrontzi.
Bakarrik zuek ikusiz
erraiak zaizkit nahasi.

Beltzuntza (langile horia)
47. Papoa hanpatzen zaizue
heiagoraz eta elez.
Kiorik ez mihi puntan,
auriaka edo negarrez.

48. Zer jende klasa zarete?
Intxaur guti arroitu anitz.
Pataskatuko zaituztet.
Zatzaizkidate nakaitz.

Isa (langilea)
49. Zuek beti berdin hertsatzen,
mehatxatzen, ofentsatzen...
Ipurdiak milikatzen.
Bizitzea garrantzatzen.

Kakalardo (langile horia)
50. Ixo, axut emakume!
Hara, ezkon zaitezte!
Haurdunaldiak egiten,
zuek, emazteak, emazte!

Zorri (langile horia)
51. Zigor ezar diezazueten!
Baitzarete managaitzak.
Gure lepotik ez barre!
Har itzazue erratzak!

Langile zintzoak
52. Alde, utikan txatxuak!
Jadanik gibeleratu!
Eta burua plegatu
ala egurra dastatu.

Bataila. Jelki poliziak, jujea eta fabrikako nagusia taularat (borta gorritik). Langile horien, eskirolen, laguntzera doaz. Poliziek gomazko pilotak eta ke potoak jaurtikitzen dituzte. Liskarrean gazte bati begi bat leherrarazi diote... Langile zintzo zenbait atxilotuak eta kolpatuak gertatu dira. Txakurren artean ere batzuk kolpaturik.

Guziak erretira beren ateetarik. Agertokia hutsik geratzen da.